


# NUEVOS EXTRACTOS

DE LA REAL SOCIEDAD BASCONGADA  
DE LOS AMIGOS DEL PAÍS

*EUSKALERRIAREN ADISKIDEEN ELKARTEA*



Discursos pronunciados en el Acto de Ingreso de:  
GARIKOITZ MENDIZABAL ETXEBARRIA

Suplemento 21-G del Boletín de la RSBAP

DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN  
2015



Julián Serrano, Garikoitz Mendizabal, Juan Bautista Mendizabal



**TXISTUAREN HISTORIA,  
ILUSTRATUEN ERAGINA  
ETA GAUR EGUNERARTEKO BIDEA**  
**HISTORIA DEL TXISTU, EL LEGADO DE LOS ILUSTRADOS  
Y SU RECORRIDO HASTA LA ACTUALIDAD**

Lección de Ingreso en la  
Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País  
Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte

Hizlaria:  
GARIKOITZ MENDIZABAL ETXEBARRIA

Palacio Intsausti Jauregia (Azkoitia)  
2014-09-27

**TXISTUAREN HISTORIA, ILUSTRATUEN ERAGINA  
ETA GAUR EGUNERARTEKO BIDEA.  
BERE ORAINA ETA ETORKIZUNA NIRE IKUSPEGITIK**

Hitzaldiari ekin baino lehen, lehendabizi eskerrak ematen hasi nahiko nuke, ohore haundia baita erakunde honetako partaide izateko aukera izatea. Are gehiago nik horrenbesteko pasioz bizi dudan txistulari-bizitza honetan oso gertu eta hurbil izan ditudalako Euskal Herriko Adiskideen Elkarteko hainbat kide, besteak beste, Juan Ignazio Uría, Juan Bautista Mendizabal eta azken urteotan Julian Serrano eta Harbil Etxaniz.

Aitortu behar dizuet lotsa apur bat ere ematen didala Elkar-teko kide direnen profila ikusteak, edo hobeto esanda ni haien ondoan ikusteak... Baina pentsatu nahi dut bizitzak bere errit-moa daramala, gazteago garenon unea heltzen ari dela, eta gure herria eta bere kultura maite dugunoi eta horretan lanean ga-biltzanoi ere aukerak emateko garaiak heltzen ari direla.

Lau ataletan banatu dut nire hitzaldia. Lehendabiziko hiru ataletarako zuzen zuzenean txistuaren historia ondo baino ho-beto ikertu duten Jose Luis Ansorena, Mikel Aranburu, Karlos Santxez Ekiza eta Jose Inazio Ansorenaren lanetara jo dut. Azken atalean berriz, nire ikuspegia emango dizuet bai gaur egungo egoeraren inguruan, bai etorkizunari buruz, zenbait proposa-men eta iradokizun plazaratuz. Has gaitezen, beraz...

## 1.- TXISTUAREN HISTORIA

### 1.1.- Historiaurrea

Txistua eta txistulariak aspalditik gatoz. Txistu izena aipatu gabe, hiru zulutako flautek milaka urtetako aintzinasuna dute, eta historiaurreko aztarnategietan azaltzen dira txirularen

antzeko tresnak. Ezagutzen den zaharrena, Passermard Dokto-reak aurkitu zuen 1921ean Isturitzeko haitzuloan egindako indusketetan. Hiru zuloko hegazki-hezur bat da, 12 bat zentimetro luze eta 15 milimetro zabal dituena. Hezurra puskatuta dago hirugarren zuloan eta horregatik baliteke zulo gehiago izatea ere. Aztarnategiko A mailan aurkitu zuten, hau da, *Auriñaciar* tipikoari dagokiona edo bestela esanda, orain 25.000 urte dago-kionean alegia. Badaude garai horretako antzeko flauta gehiago, baita Solutre aldikoak, eta batez ere Magdalenaldikoak.

Xirula guzti hauek gauza batean dira berdinak, hegazki-hezurak edo animalien tibiai dira, bi zulo edo gehiagorekin. Ez dago jatorrizko eskualdeen araberako ezaugarri propiorik eragozterik ezta, hari edo honi, hasierako egiletza esleitzerik. Herrialde guztietako historiaurreko gizona da tubo zulodun batek soinu interesgarriak ateratzen dituela ohartu zena. Eta horretarako lehengairik eskuragarriena erabiltzen du: hezurra.

## 1.2.- Antzinateko zibilizazio desberdinetako flautak

Munduaren historian sartzen bagara, oroar musika-tresnen eta partikularki flauten gero eta lekuko gehiagorekin topo egingo dugu. Testigantza idatzi eta ikonografikoekin, erliebetan bereziki. Iritsi zaigun literaturarengatik, herri askok flautari ematen zioten zentzu magikoa ezagutzera iritsi gara. Instrumentu hauek ezin zitezkeen falta erritozko zeremoniarik sakratuene-tan. Jainkoaren erregali bat bezala ikusiak ziren eta bere soinua zuzeneko ahots goitiarra bezala entzuten zen.

Antzinateko zibilizazioan bost kontinentetan oso zabaldua zen eta ordurako eboluzio naturala suertatu zen fabrikazioan ere. Orain, hezurraz gain, adarrak, kanabera, egurra, marfila, zeramika, e.a. erabiltzen ziren.

Bereizten zituen apaindura eta ornamentazioak ziren. Eta Euskal Herrira etorrita, zoritxarrez ez dugu Antzinateko testi-

gantzarik, baina Isturitzeko aztarna izanda, pentsatzekoa da hemen ere beste lekuetako garapena izan zuela.

### 1.3.- Flauten protagonismoa Erdi Aroan eta Errenazimenduan

Flautei beren eboluzio historikoan lagundu dieten elementu guztiek esku hartu zuten Erdi Aroaren garaian izan zuten protagonismoa lortu ahal izateko. Gotiko garaian gaude, herri hizkuntzak sortu eta koblakari eta juglarrak azaldu ziren garaian.

Ordurarte flauta-joleak persona isolatu edo bakartiak baziren, garai horretatik aurrera flautagile eta flauta-joleen gremioaren aztarnak antzematen dira, goi-nobleziako jendeen artean ere aurki daitezkeelarik.

Eta garai honetantxe topatzen dugu, hain zuzen, flauta eta danbolinezko multzoaren jatorria ere. XII. mendetik aurrera aski erraza da flautaren kontzeptuan nolabait ere eraldaketa suposatzen duen mini-orkestra horren testigantza ikonografikoekin topo egitea. Danbolina gehitu zenetik, dantzarako musika-tresna bilakatu zen. 1450 eta 1550 artean, eta batez ere Frantzian, azalduko da flauta eta danbolin multzoa dantza eta jaialdi guztietako elementu printzipal bezala.

Euskal Herrian ere flauta-danbolina bikotearen lehen irudiak XII. mendekoak dira. Baionako eta Iruñeako Katedralean, Olivako Monastegian, San Zernin Elizan ikusi daitezke erliebe, pintura eta testimonio ikonografikoak. Lekukotza horietan aingeruak, gizonak, umeak eta zentauroak ditugu flauta zuzenak danbolinarekin jotzen.

Erdi Aroan bitan banatzen ziren musika tresnak eta jotzeko moldeak: gaztelaniaz *música alta* eta *música baja* izenekin ezagutu dira. Bereizgarrietako bat ateratzen zuten soinuaren bolumena zen, eta horrela, lehen multzoan bozina, trompeta luzea, dulzaina, kornamusa, sakabutxea eta tanborrak zeuden. Bigarreanean, hau da *música baja* delakoan, sokadun musika tresnak ziren, hots,

viola, arpa, salterioa eta flautak. Ñabardura bat aipatzearen, lehen taldekoak beti gizonezkoek jotzen zituzten bitartean bigarren taldekoetan berriz ohikoagoa zen emakumezkoak ikustea.

Baina talde banaketa horretan bada salbuespen bat: *Gure* flauta-danbolin bikotea edo binomioa talde bietan agertzen zen; ejertzitoaren aurrean desfilean tronpetekin, edo dantzei laguntzen kalean kornamusa eta dultzainaz batera. Baina baita aretoan arpa, laud eta biola batekin ere. Errealitate honek, gainera, iraupen nahikoa luzea izan zuen zeren XIII. eta XVI. mendeen artean normala zen flauta-danbolina gorte eta noblezia giroetan ikustea eta aldi berean ezkontza eta nekazarien dantzetan.

Ingalaterran adibidez ikerketa bat egin zen XV. mendeko musikarien kontratazioen inguruan. Emaitzek adierazi zuten mende horretan ondoen ordaindutako musikariak esku bakarreko flauta eta danbolin-joleak zirela.

Baina 100 urteren bueltan musikari hauek eskale ikusi ditza-kegu, baztertuta edo baztertze bidean... Zer gertatu zen? Estilo berrieak, gusto musikalak eta moda aldaketak baztertu egin zuten zenbait gunetatik. Horretaz gain, izan zituen bada aurkari gogorak ere, eliza adibidez. Elizak aspalditik zituen errezeloak eta deskonfiantzak musikari hauekiko, gorte eta herri-dantzen ezinbesteko laguntza eta elementuak zirelako. Jakina da elizak kontrolatu ezin zituen dantza eta dibertsio oro pekatu zirela, musikariak bereziki pertsegituak izanik. Zenbateraino? Adibidez Stuttgart-eko liburutegian XIV. mendeko eskuidatzi bat dago danbolinteroari jauna hartzea ukatzen zaiona. Hau ohikoa zen nonbait. Danbolinteroekin batera epileptikoak, sonanbu-loak eta magoak jasarpen bera izaten zuten. Praktika hauek kasik XVII. menderarte luzatu ziren. Badira argazkiak deabrua bera danbolintero bezala agertzen dena, eta baita aingeruak ere (neskak) danbolintero moduan.

Beraz, XVI. mende erditik aurrera danbolinteroak prestigioa galtzen hasi ziren. Ikusi dugunez, Erdi Aroan izugarritzko garrantzia hartu zuten flauta hauek Europako gorteetan, are eta



XVI. mendean bibolinak lekua hartu zion arte. Nobleziaren musika-zaletasunak aldatu egin ziren eta Europako hainbat lekutan (Europa erdialdeko herri batzuetan, Herbehereetan...) desagertu egin ziren hiru zuloko flauta eta danbolinak. Elizak ere mesfidantza handia zuen, dantza, *gure flauta* eta danbolinarekin askotan sorginkeriekin lotzeraino. Beraz, goi-mailako emanaldietan desagertzen ari ziren bitartean, herri soilaren dantza eta festa giroan berriz jaun eta jabe izaten jarraitu zuten flautak eta danbolinak.

XVI. mendetik aurrera sarri agertzen dira danbolinteroen erreferentziak udal artxiboetan. Adibidez, Imanol Elias Odriozolak ikertu zuen Azpeitikoa, eta 1515. urtetik hasita ondoko hauen izenak agertzen dira, besteak beste: Joan de Areso, Domingo Etxaniz, Joan Garagarza eta Joanes Biain. Garbi dagoena da garai hartan ohikoa zela danbolinteroak igandetako erromerietan, korpuseko prozesioetan, dantza erritualetan eta herriko jaietan aritzea.

Nire herri kuttun Zestoari erreferentzia egiteagatik, Ondarroan bizi zen Joan Beruete danbolin-jotzailea Zestoan izan zen 1530. urtean.

#### 1.4.- XVII. mendea

Orain arte (XVI eta XVII erdialderarte), kontratazioak puntualak baziren ere, orain luzeagoak izaten hasi eta emeki emeki langile publiko izaterainoko bidea hasten da. Inguruko datuak aipatzearren, Azpeitiko Udaleko kontu-liburuei esker badakigu 1630. urtean Zestoan eta Azkoitian bazirela danbolin-jotzaileak: “*A los tamboriles de Cestona y Azcoitia, por fiestas de San Sebastián*” (1630eko martxoa). Eta urte batzuk geroago agertzen zaigu, lehendabiziko aldiz, Zestoako danbolin-jotzaile baten izena: “*Pa-garon 132 reales a Ignacio de Olarte y Martín de Arizmendi, tamboriles de Guetaria y Cestona, por cuatro días de San Ignacio*” (Azpeitiko Udala, Kontu-liburuak, 1642ko iraila).

Sasoi horretan danbolinteroak, askotan, poli-instrumentistak ziren eta normala zen danborrero baten laguntzaz aritzea. Carmen Rodríguez Suso-k argitzen digu ekitaldi publikoak zirenean, bertan beraz agintariak izanik, danbolinteroa (batzutan pífanoa jotzen) atabalariz lagunduta agertzen zela; erromeri, ezkontza edo bataiotan, aldiz, danbolinteroa bakarrik.

Mende horretan zalantzarik gabe soka-dantza zen gehien jotzen zen dantza, gaur egun auresku bezala ezagutzen duguna, hori bai, osorik. Nolanahi ere, XVII. mendean soka-dantza hauek koexio sozialaren kontzeptuan erabiliak ziren, bateratzaileak ziren. Halere dantza horietan izaten zen hika-mika eta zalaparta... askotan ez dantzarekin lotuak baizik eta agintarien kokapenari zegokionez. Kokapenak agintea erakusten bait zuen.

Adibide gisa 1657an Zumaian don Bernardo de Idiaquez eta Joseph de Yrure-en artean gertaturikoa kontatuko dizuet. Don Bernardok soka-dantza ari zen lekura etorri, danbolinteroari geratu arazi eta dantza bere gustora antolatu zuen. Ohorezko lekuak Zumaiakoek hartu zituzten bera barne (nahiz eta bera Azkoittiarra izan). Horrela egin zen eta Yrurek desafioa bota zion Idiaquez-i. Desafioan don Bernardok hil egin zuen Joseph de Yrure.

Gainontzean eta orokorrean gizaldi horretan asko areagotu ziren goi-mailako klase eta herriaren arteko desberdintasunak. Musika eta dantzan ere bai.

## 2.- ILUSTRAZIO-GARAIA ETA BERE ERAGINA

XVIII. mendean ere oso nabarmenak ziren gizarte-maila desberdinen arteko diferentziak. Madariagak aipatzen du adibidez Donostian %0,73ak eta Azkoitian %1ak zutela Udal Gobernuan parte hartzeko aukera. Diferentzia hauek bizitzako arlo guztietan isladatzen ziren. Bataiatzerakoan elitekoek izen bat baino gehiago hartzen zuten eta herri xeheko umeek berriz izen bakarra. Hilobiak ere gune preferenteetan izan ohi zituzten goi

mailakoek, eta ekitaldi sozialetan ohorezko tratu, agur eta lekuhartzeak zituzten. Iztueta dantza maixu Zaldibiarrak ere ederki ematen digu horren berri bere idatzietan.

Horregatik, baziren desberdintasun nabariak dantzaldia goi mailako herritarrak antolatua izanda edota jende arruntak antolatua izanda. Goi mailakoek *Saraok* egiten zituzten eta norma-lean kitarra eta bibolina ziren musika tresna estimatuenak, herri xeheak eta nekazariak, aldiz, *Bijiliak* egiten ohi zituzten, eta txistua zen beraien musika-tresna gustokoena. Honela zioen Aita Palacios-ek, eta modu beretsuan aritzen da Aita Larramendi:

*“Vaya la juventud mezclaba a bailar a un gran salón, donde no hay Alcalde, ni Regidor, ni aún tamborilero, que pueda zelar. Puede ser que haya algún ciego que taña el violín...”*

Testuinguru horretan, beraz, agertzen eta sartzen zaigu Ilustrazio edo Argien garaia deiturikoa. Ilustrazioak munduko misterio guztiak argitu nahi zituen arrazoiazen argiaren bidez, bai eta superstizioa eta ezjakintasuna deuseztu ere. Hiru izan ziren mugimendu intelektual horren ezaugarriak:

- Gizartea, arrazoimena aplikatuz azter zitekeen. Gobernu-sistemek zentzuzkoena eta egokiena hartu behar zuten kontuan, eta ez tradizio hutsari besterik gabe eutsi. Arrazoimena aplikatzeak gizadiaren aurrerapen etengabea eragingo zuen.
- Gizakia zen pentsalari ilustratuen teoriaren ardatz nagusia. Pertsonen eskubide naturalak dituztela defendatzen zuten. Botereak ezin zituen eskubide horiek deuseztu.
- Aurkikuntza zientifikoak gauzatzea eta filosofoen ekarpenak gizartean eta politikan ezartzea.

Musika eta dantza derrigorrezko elementuak ziren heziketa prozesuan eta denbora pasarik gomendatuenak. Momentu honetan Parisen oso modan jarri ziren Proventzako *tambourin* eta *Galoubet*-a, txistu eta danbolin familiakoak.

Badakizue hemen Ilustrazio garai honen balio eta baloreak sustatzeko Peñafloridako Kondeak izan zela pertsonai printzipala. **Frantzisko Xabier Maria Munibe Idiaketz**, tituluz **Peñafloridako kondea**, (Azkoitia, 1729 Bergara, 1785) euskal idazle eta musikagilea izan zen. Euskal Herrian Ilustrazioaren ideiak zabaldu nahian Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte sortu zuen. Munibe, *Francisco Xavier Maria Joseph Juaquin Phelipe Feliz Jacinto Ygnacio* izenez bataiatua, Filipe IV.a erregeak 1635ean sortutako Peñaflorida etxeko zortzigarren kondea izan zen. Azkoitiko jesuitekin egin zituen lehen ikasketak. Etxe leinargiko semea izaki, 1742tik aurrera Okzitaniako Tolosan zientzia ikasketak egin zituen, betiere Frantziako Enziklopediazaleen haritik, zientzietan eta arte ederretan prestakuntza ona lortuz. 1747an aita hil zitzaion, eta Azkoitira itzuli zen.

Hurrengo urtean, Areizagako baroiaren alaba Maria Josefa Areizagarekin ezkondu zen. Aitarengandik jaso zituen tituluak eta maiorazkoak: Apraiz etxekoa, Insaustitarrena eta Munibetarrena, besteak beste. Ezkonberriak Insausti jauregian bizi izan ziren 1767. urtera arte. Peñaflorida kondea oso ezaguna izan zen, eta kargu politikoak izan zituen, esaterako Azkoitiko alkate izan zen, Gipuzkoako Ahaldun Nagusi eta 1758an diputatu Madrilgo gorteetan.

Solasaldiak antolatzen zituen bere etxean, eta bertara biltzen ziren probintziako aiton-semeak eta jakituria handiko gizonak, hasieran gizarteko gaiez hitz egitera, eta geroago baita ere zientziaz, literaturaz, filosofiaz edota historiaz. Azkoitiko Zalduntxoen izena jarri zitzaion. Igandeetan musika eta antzerki lanak egiten zituzten, eta Bergarako Errege Mintegia sustatu zuten.

Gaur egun ezagutzen dugun txistua eta danbolina garai hartan sortua zela esan daiteke eta ikusiko dugun moduan ilustratuek berebiziko eragina izan zuten kontu edo arlo askotan.

Narros etxeko Markesak aipatzen du nola Peñafloridako Kondeak berak eskolak ematen zizkiola Azkoitiko danbolinteroari, eta Kondeak sortutako zortziko eta kontradantzak jotzen

zituela. Hori dela eta, zenbaitzuk Xabier Munibe ezagutzen den txistu doinuen lehen musikagiletzat hartzen dute. Aita Donostiak berak aipatzen du Brokel-dantzetako doinu batzuen egilea izan daitekeela.

Elizak behin eta berriz plazako txistu-soinua eta dantzak kentzeko ahaleginak egiten zituen bitartean, agintari ilustratuek ahalegin haundiagoak egiten zituzten horiek mantendu eta kontrolatzeko. Horietako pasarte bat Azkoitian gertatu zen eta Jon Bagües-ek jaso zuen: 1746 urtean Aita Mendiburu apaizak kexa bat bidali zuen, bertan danbolin-musika kentzeko eskatuz. Hona hemen Udalaren erantzuna:

*“acordaron permitir el tamboril en la plaza; pero pareció conveniente que en los bailes hubiera pañuelo entre hombres y mujeres y prohibieron que se tocara el son llamado tafetan, u otro equivalente que induzca a correr atropellada y descompasadamente”*

Garai hartako Azkoitiko Alkatea Manuel de Altuna zen, Rousseau-ren lagun pertsonala.

Begira Jose Ramon de Elorza, Azkoitiko parrokoak berriz, zeinen garbi agertzen zituen bere hausnarketak:

*“En efecto, si tanto se reclama en el día por los Oradores sagrados contra las danzas y bailes, y con justa razón, lo es por el desenfreno que reina en ellos, libertades que se toman e indecencias que con el mayor descaro se cometen. (...).*

*¡Lamentable fatalidad! ¿Qué remedio pues para tan grave mal? ¿Desterrar enteramente tamboril y bailes en las plazas? Traería sus inconvenientes, y puede que acaso sería peor el remedio que la enfermedad. (...).*

Gauzak horrela, garai hau izan zen hain juxtu Udal danbolinteroak herri ia guztietan kontratatzen hasi zen unea. Sarritan beste lan batzuekin osatzen zuten lan eguna: pregoilari, kartero, ezkila-jole, aguazil, dantza- maixu, e.a.

Ikusirik dantzen eta plazako musikarekin zegoen iskanbila, Udalean kontratatua egin ostean, agintariek aukera ikusi zuten

dantzak ere kontrolatzeko, beraientzako protokolo-lanak eta bestela bihurtzeko.

Garai hori izan zen protokoloa berrantolatu zen unea: Orain ezagutzen ditugun janzkerak eta Alkate Soinuek generoak ere orduan sortu ziren.

Ilustratuek ere izan zutena eragina Musika-tresnen erai-kuntza eta organologian. Musika-tresnak txikiagotu egin zituzten, afinazioa hobetuz, eta hasi ziren txistulari bikoteak jotzen danborrarekin batera. 1780 inguru, Pepe Anton-ek dantza-musikak papereratu eta partiturak zeudenetik Ilustratuen eraginez inflexio puntua suertatu zen. Aurretik danbolintero iletratuak baziren, garaiko txistularia (nahiz eta oraindik horrela deitu ez) musikoa zen.

Jarraian ilustratuen eraginez izandako aldaketarik nabar-menak aipatuko ditut:

- Ordurarte danbolina zen nagusi, printzipala, dantzarako ezinbestekoa zelako. Ordutik Aurrera doinua, soinua izan zen garrantzitsuago, danbolina lagungarria izanik.
- Beste generoak agertu ziren txistularien errepertorioan: Kontrapasa, fandangoa, kontradantza, idiarenak, mazurkak, baltsa, boleroa, minuetoa...
- Digitazioan ere aldaketak izan ziren, eta hasi ziren bi oktabakoa erabiltzen, bere kromatismoekin. Tubo osoa itxita (hiru zuloak itxita) RE nota hartu zuten abiapuntu eta beraz instrumento transpositorea izatearen aukera egin zuten.
- Inprobisazioak garrantzia galdu zuen, aldiz, txistulariak gai izan behar zuten bere konposizioak egiteko. Horren adibide garbiak ditugu garaiko oposaketan dokumentuetan.
- Esan bezala, normala zen bi txistu eta danborra elkarrekin ikustea. Silbotea ere orain sortu zitzaigun.

- Musika berria ere sortzen zen, espreski txistu talderako idatzia.
- Protokoloa berrantolatu zen neurrian indartu egin zen txistu eta klarinen (tronpeten) erabilera.

Horiek guztiek gorakada sozial garbia ekarri zuten danbolinteroentzat. Ilustratuen erreformekin txistulariak beste irudi bat lortu zuen, neurri batean behintzat udal ordezkari bihurtuz. Teknikoki eta musikalki ere gorakada handia eman zen. Adibide gisa Vicente Ibargurenek Madrilen eskeini zuen saioa:

*“en él a pesar de no tener sino tres agujeros, ejecutó un concierto de violín que gustó muchísimo en Madrid”.*

Gorakada hori XVIII. mende osoan zehar eman zen, eta mende-amaieran dagoeneko isladatzen ziren zetorrenaren zantzuk. Danbolinteroak tradizio garbi, honesto eta sekularren eredu zen, baina aurki izango zuen aurrean atzerriko modak ekarri eta bereganatuko zituen musika tresna: Akordeoia. Eta bere etorrerarekin batera beste aro bat hasi zen.

### 3.- XIX. MENDEA. TXISTULARIAREN DEKADENTZIA

Aro berri hau XIX. mendearen erdialdetik aurrera ematen da. Jose Inazio Ansorenaren arabera fenomeno diglosikoa ematen dela esan genezake. Alde batetik txistu eta danbolina ez dira izango dibertsio eta jaietarako baliabide printzipalak eta aldiz gero eta gehiago sentimendu eta ideologia bati lotuak. XIX. mende amaierako eta XX. mende hasierako berpizkunde kulturalak, gure herriak zerbait propioa, benetakoa, garbia zuelakoaren iritzia zabaldu zuen, eta horrek abertzaletasunari ateak ireki zizkion.

Txistua *euskal nortasunaren* sinbolo bilakatu zen. Horrek txistuari gauza onak ekarri zizkion, baina baita gauza okerrak ere: jotzeko modua aldatu egin zen, afinazioari eta musikaltasunari ez zitzaion arretarik jarri. Aldiz Lore jokoak, txistularien lehiaketak (bakarkakoak eta taldeka), e.a. asko ugaltzen dira.

Dekadentzia edo beherakada honetan bi fase ikusten ditu Ansorenak.

- Lehenengoa Nazionalismoa iritxi artekoa; bertan azken mendean emandako aldaketak estabilizatuz doaz eta euskal gizartearen elementu naturalak ikusten dira. Ahaztu gabe, noski, desberdintasunak anitzak izan zitezkeela nekazari gizartea izan edo kalekoa, herri xeheari zegokiona edo aristokratena. Dirudienez orduan hasi zen Txistua izena erabiltzen.
- Bigarren fasea, berriz, Nazionalismoarekin batera azaltzen da. Euskal identitatearekin lotu zen jotzeko modua, estetika berria, ibiltzeko modua, begiratzekoa, janztekoa, dantzan egiteko modua... Den-dena aldatu zen. Eta hasieran berria zen jarrera horrek bere baitan zekartzan beherakadaren xamorrua. Aurrekoen musika-tresna goxoa bezala ikusten bazen ere, oraingoa “gerreroa”, “txilloia” eta gazi-gozoa izatera pasatu zen. Hori, noski, ez zen guztientzat berdin, normala zen bezala aurrekoaren defendatzaileak ere bazeuden, elkarbizitza bat eman ez, generazio eta ikuspuntu desberdinen elkarbizitza. Danbolintero ofizioa oso errespetagarria zen eta hauen baluarte adibidez Bonifazio Laskurain, Landaluzetarrak, Ansorenatarrak, Ansolatarrak, ...

Esanguratsua da gainera Isidro Ansorenak bere txistu meto-  
doari “*Txistu hots gozoa nola?*” izenburua jarri izana. Txistulariek erabiltzen zuten erregistroa ere aldatu zen. Aurrekoak RE LA erabiltzen bazuten ere, orduntxe askok DO-DO agudoa erabiltzen hasi ziren, afinazioa asko zailduz eta interpretazioa deskuidatuz. Denborarekin gainontzeko musika-tresnen afinazioa diapasoiari hurbiltzen bazitzaion ere, txistua nahikoa hurrun geratu zen.

### 3.1.- XX. mendea

XX. mende hasieran gertakari oso garrantzitsua eman zen: 1927an Euskal Herriko Txistulari Elkarteak sortu zen, eta Elkar-



tearekin batera *Txistulari* aldizkaria, gaur egun Europako aldizkari zaharrenetakoa. Elkarrekin hainbat onura ekarri zituen, besteak beste garaiko musikari handiak txisturako idazteko ohitura zabalduz (Eduardo Gorosarri, Luis Urteaga, Pablo Sorozabal, Jose Mari Glz. Bastida, Jesus Guridi, e.a.), txistulariak elkartu eta bide propioa markatzeko aukera sortuz, errepertorioa elkar-trukatuz, handituz eta zabalduz.

Gerra zibilak, ezin bestela, geldialdia ekarri zuen eta 1950. urtearen inguruan, gerraren zantzuak ahazten doazen einean, belaunaldi gazteek hartu zuten jarraitzeko ardura. Txistulari profesional zirenak adinean aurrera zihoazen eta sarritan ez zuten ondorengorik. Ezinbestean etorri zen beste krisi garai bat. Krisi garai horrek ere momentu desberdinak izan zituen. Aurrenekoa gerraren ostean erreakzionatzeko ezintasuna aipatzen du Jose Inazio Ansorenak, eta horretatik Isidro Ansorenak eta Fernando Vidal-ek egidako lanari esker aurrera egin zela dio. Urte batzuk geroago ordea egoera okerrera joan zen eta modu bateko eta besteko irtenbideak saiatu baziren ere ez zen arrakasta handiegirik lortu. Horren adibidea da Donostian sortu zen Grupo Experimentalak. Txistu familia osoa hartu eta orkestra bat egiteko asmoa zuen, besteak beste, Grupo Experimentalak. Gerora ikusi da akats kontzeptualak zeudela tartean, eta ez zen irtenbidea egokia izan.

### 3.2.- Jose Inazio Ansorenaren eskola

Irtenbidea Jose Inazio Ansorenak gidatu zuen. Berak egindako lanari esker pedagogian, jotzeko moduan eta organologian aldaketa ugari gertatu ziren. Izan zituen aurkariak ere, baina denborak garbi erakutsi digu bide egokia hartu zuela eta orain txistulariok oinarri sendo batetik etorkizuna zabala bezain erakargarria dugula.

XX. mendearen azken laurdenean Jose Ignazio Ansorenak eginiko lana aipatu eta goraiatu behar da. Ikusi besterik ez dago zenbat alorretan egiten duen lan:

- Txistuaren afinazioa hobetu zuen eta FA naturalean afinatutako txistua sortarazi zuen, eta asentatu da. Horrek beste musika-tresnekin aritzeko bidea errazten digu.
- Txistua musika-tresna ofiziala izatea lortu zuen Jose Ignazio Ansorena bera katedraduna zelarik, eta ondorioz txistu-irakasleak hasi ziren lan-egoera hobekoak pairatzen: Batzuk funtzionarioak besteak irakasleak, baina kontratu finkoa.
- Metodologia berria egin eta egokitu beharra izan zuen. Txistu Gozoa metodoa eta Kontserbatoriorako programazio osoa burutuz.
- Txisturako hainbat musika-lan idatzi. Asko.
- Difusio eta lan propagandistiko handia: irratia, telebista, artikulu, hitzaldiak, Donostiako Udaleko txistulariekin.
- Diskografia: Txistulari Bandarekin, bakarka, pailazoe-kin...
- Teknikaren ikerketa. Dituen aukera desberdinak eta perkusio desberdinak erabili.
- Instrumentuaren iragana ikertu.

#### 4. TXISTUAREN ORAINA ETA ETORKIZUNA

##### NIRE IKUSPEGITIK

Gaur egungo txistularitzaren argazkia azaltzea ez da hitz gutxitan eta sinpleki egiteko gauza erraza. Jose Inazio Ansorenak utzitzako ondareak eta ate zabal guztiek izango dute beraien bilakaera, ziur. Akaso aipatzen zuen krisitik ateratzeko modua, euskal musikagintzan txistulariok gure lekua zein den ulertzean datza eta gureak diren horiek mantentzen jakitean. Hain juxtu mundu zabal baten jabe garelako txistulariok: dantzen erreper- torioa, danbolinteroen tradizioak (alboradak, dianak, e.a.), peda- gogiarako tresna egokia, musika garaikidea, ganbera musika,

arlo instituzionala, ... hauek guztiak mantentzearekin batera aurrera begiratu behar dugu.

Inguruari begiratzan diodanean asko pozten nauten kontuak ikusten ditut, baina badira kezkatzen nautenak ere. Askotan, kalean batez ere, behar ez bezala entzuten dut txistua, eta uste dut beharrezkoa dela birziklatze prozesua. Hainbat herritan ematen ari da, baina nahi baino gutxiagotan. Belaunaldi desberdinetakoak elkartzen gara askotan, amateur eta profesionalak, baina ez genuke XXI. mendean sentsazio desatsegina sortarazi behar.

Gaur egun, nik ere, ilustratuen printzipioak aldarrikatzen ditut. Txistu irakasleak daukagu giltza, eta txistu ikasleak musika egiteko prestatu behar ditugu, ez kalean akibitate sozial edo “manifestazio” musikalak egiteko.

Kontserbatorioaren eraginez txistulariok asko hobetu dugu teknika, eta beste erreperitorio batzuekin ere ausartzen gara, baina dantza eta folklore inguruan aritzeko indarra eta txispa zertxo bait galdu dugula uste dut. Euskara batuarekin gertatu den bezala, txistua jotzeko eskola jakina homogeneizatu da. Eskola ona, oso ona baina gure aurreko txistulariek zituzten doaiekin bateragarri egin beharko genukeena. Danbolinaren erabilera sarritan nahiko traketsa izan ohi da eta ez dugu nahi-koa zaintzen bere erabilpena.

Amaitzeko, azken urteetako nire konpromezua zein izan den azalduko dizuet eta baita etorkizunerako ditudan erronka eta helburuak.

Nire burua definitzerakoan... txistulari interprete bat ikusten dut. Nere burua interpretazioan dabil eroso eta gustora. Hau oso garbi izan dut betidanik eta horregatik txistu mundura ekarri izan ditut hainbat musikari handi nire/gure proiektuetarako idatz zezaten eta bide batez txistu erreperitorioa ugaltzeko. Batzuk aipatzearren Xabier Zabala, Anjel Unzu, Pello Ramirez, Iñaki Salvador, Kepa Junkera, Josu Elberdin, Carlos Sagi, Aitor Furundarena, e.a. Uste dut txistuaren diskografia handitu behar

dugula, bere aurpegi desberdinak azalduz. Zeren txistua musika-tresna da, baina familia handi bateko kidea: MI b, MI, RE, FAko txistuak, Silbotea eta txilibitua, bakoitzak bere nortasuna du eta erabilera eta estetika desberdinatarako prestatzen dira.

Hauek erabili ditut esaterako nire azken lanetan: SOSEGUA proiektua eta GOGOETA (New Age).

*SOSEGUA (Jexux gogoan)*

<http://youtu.be/K7HMqfRXhFo>

*GOGOETA*

[http://youtu.be/n3Ge9vQKjVM?list=UUJj02KhLozqeLZcVgcZn\\_0Q](http://youtu.be/n3Ge9vQKjVM?list=UUJj02KhLozqeLZcVgcZn_0Q)

Oso pozik nago TXISTU SYMPHONIC egitasmoa izaten ari den bilakaera eta garapenarekin. Txistuari aukera ederra sortzen zaio orkestra baten aurrean bakarlari bezala aritzeko, eta bere errepertorio propioa osatzeko. Bilboko Orkestra Sinfonikoaz estreinatua nuen 2011ko abenduan eta Bratislavako Orkestra Sinfonikoarekin grabatu. Aurten Hego Korean izan nahiz eta ziur datozen urteetan bere bidea egingo duela Estatuan zein atzerrian txistu hotsak orkestra sinfonikoaz uztartuaz.

*Euskal Kanta Bilduma (Chun Cheon Philharmonic Orchestra)*

<http://youtu.be/UTBoXiOx07c>

Bada beste fusio bat Bilboko Udal Txistulariok egin genuena, eta aipatzea merezi duena: Jazz laukotea (kitarra, trompeta, kontrabaxua eta bateria) eta txistulari banda tradizionala.

Orain urte batzuk ikusten nuen euskal musikaren zirkuito komertzialean txistua ez zegoela presente. Helburu bezala jarri nuen presentzia hau lortzea eta esan beharra daukat formatu desberdinetan baina lortzen gabiltzala. Euskal Herriko Antzoki nagusienetan aritu izan gara (Euskalduna Jauregia, Kursaal, Printzipal Antzokia, Getxo Folk, e.a.) eta nire nahia izango litza-teke datozen txistulariek bide hau ere jorratzea.

Hala ere, ez genituzke ahaztu behar betidanik gure esparruak izan diren horiek; dantzak, kale animazioak, protokoloak atenditzea, erromeriak egitea, e.a.

## BIBLIOGRAFÍA

---

- Apezetxea, Patxi; Hernani Eta Txistua. Bere Txistulariak - Sus Txistularis, Soc. Gip. Ediciones y Publicaciones, 1993 (Jose Luis Ansorena: 21- 38 orrialdeak)
- Aranburu Urtasun, Mikel; Niebla y cristal. Una historia del txistu y de los txistularis, Pamiela, 2008 (39, 43 eta 129 orrialdeak, eta epigrafea)
- Sánchez Ekiza, Karlos; Txuntxuneroak. Narrativas, identidades e ideologías en la historia de los txistularis, Altaffaylla Editorial, 2005 (48-49, 90, 91, 94, 95 orrialdeak)
- Sánchez Ekiza, Karlos; Del danbolín al silbo: txistu, tamboril y danza vasca en la época de la Ilustración, 1999 (38, 42, 44, 47, 48, 58, 69, 72, 127, 132, 133, 135, 137, 138, 139, 140, 142, 143, 145, 147 orrialdeak)
- Ansorena, Jose Inazio; Apunteak (argitaratugabeak)



**HISTORIA DEL TXISTU, EL LEGADO DE LOS ILUSTRADOS Y  
SU RECORRIDO HASTA LA ACTUALIDAD.  
PRESENTE Y FUTURO DESDE MI PERSPECTIVA**  
(Resumen en castellano)

El txistulari vasco es heredero del juglar de flauta y tambor que animó con largueza el medioevo europeo y llegó, exhausto, a la Edad Moderna. Los restos de aquella eficiente y mínima orquesta cristalizaron en las distintas tradiciones culturales con su propia historia, morfología y denominación.

En Euskal Herria, el Txistu aseguró su estabilidad por la institución de la danza de autoridades, la temprana municipalización del tamborilero como soporte y control de las diversiones y de otros servicios públicos, y una acreditada habilidad de sus intérpretes para conjugar tradición y modernidad.

A fines del Siglo XVIII oportunas modificaciones técnicas y una nueva orientación musical, atribuibles al pensamiento ilustrado, situaron al Txistu en las puertas de su actual naturaleza artística y acomodo social.

Un siglo después la moda urbana renunció al Txistu y Tamboril como instrumento para el baile y lo ubicó en el limbo cordial del folclore; de aquí fue redimido por el nacionalismo como símbolo de la identidad vasca.

La última centuria, dinámica y compleja, ha devuelto al Txistu su esencia musical para afrontar el nuevo milenio con una seductora personalidad.

Efectivamente, el Siglo XX ha sido muy importante para el Txistu. Desde la creación de la Asociación de Txistularis del País Vasco en 1927, pasando por la postguerra donde se paró en lo avanzado, y hasta que en los años 50 se comenzara con los

intentos de resurgimiento. Fue José Ignacio Ansorena quien lideró los trabajos para que el txistu que conocemos hoy día tenga esta seductora personalidad y ese abanico de posibilidades.

Mientras el Txistu evolucionaba de instrumento para el regocijo popular a heraldo municipal y posterior símbolo identitario, sus intérpretes, que se cuentan por millares, han sido juglares independientes, tamborileros municipales, marginados chunchuneros, maestros de danza y músicos profesionales. Todos han compartido un mismo aliento y complacencia y, durante siglos han forjado un representativo universo de acusada influencia social y simbólica, que sin duda lo hace merecedor de nuestro interés.

#### PRESENTE Y FUTURO DESDE MI PERSPECTIVA

---

Cuando echo una mirada a mi entorno y también al mundo txistulari, junto a cuestiones que me hacen sentir verdaderamente orgulloso encuentro otras que a mi entender deberíamos cambiar y/o mejorar.

Me alegra que el Txistu sea un instrumento tan cotidiano y aceptado por esta sociedad vasca, pero hay dos cosas que me preocupan:

En primer lugar, me encuentro en ocasiones que el Txistu se escucha con determinadas carencias en cuanto a calidad y afinación, provocando una percepción desagradable como instrumento. Y esta sensación no debería darse en pleno Siglo XXI, para lo cual reivindico los principios de la Ilustración: Creo que hace falta un reciclaje para los txistularis mayores, y que los profesores deberíamos preparar a los alumnos para hacer música y no actividades sociales o manifestaciones musicales. Afortunadamente no creo que sea un aspecto generalizado, pero no deja de ser preocupante.



Por otro lado, constato un importante desconocimiento de lo que puede dar de sí la familia del Txistu. Efectivamente, dentro de esta familia tenemos 4 Txistus en tonalidades diferentes, además del Silbote y el Txilibitu. Cada uno tiene una propia personalidad y nos toca a los profesionales sacar partido de todos ellos. Y ese es el trabajo en el que últimamente me he embarcado, ampliar la discografía de nuestro instrumento y contribuir a la apertura de posibles puertas.

Reconozco que me agrada especialmente la incorporación que se está produciendo estos últimos años del Txistu a la red comercial en la programación musical con los proyectos Txistu Symphonic, Sosegua, Gogoeta, Arnasak, etc., de tal manera que a la presencia tradicional en plazas y teatros de numerosos municipios hay que sumar su presencia en los principales auditorios del país.

Los txistularis, en general, no hemos estado muy atentos a la hora de vender lo nuestro, y en los tiempos en que vivimos, en esta sociedad mediática y de las nuevas tecnologías en que estamos, no podemos olvidarnos de esta faceta. En este sentido, durante los últimos meses y gracias a la empresa Irudhitz de Azkoitia he apostado por un nuevo proyecto que se basa en los siguientes objetivos: **Contribuir al reposicionamiento del Txistu como instrumento, Internacionalizar el Txistu y Proyectar a Euskadi a nivel internacional.**



## HARRERA HITZAK

---

Julián Serrano

Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko adiskide numerarioa

Xabier Maria de Munibe, Peñafloidako kondea imajina dezakegu hementxe duela 250 urte bere lagun zain. Iraileko azken larunbata zen. Asteguna zenez, hizketaldiak gertakari politiko, kultural eta era askotako gai buruz izango ziren. Astegunetan gai zientifikoei eta teknikoei buruz aritzen ziren; igandeetan, berriz, antzerkiaren eta musikaren txanda izaten zen.

Denbora zen tertuliak nolabaiteko arauen pean egiten zirela, zientzia-akademia bihurtu nahi zituen kondeak, garai hartan Europako herrialde aurreratuetan sortu eta ospe handia hartu zuten akademien antzera. Bere etxea zen hau ere, Ilustrazioaren estilo eta arauetara egokitu zuen, bere lagunak, eta bisitariek hobe erabil zezaten. Eguneroko hizketaldi zientifiko eta akademikoen aretoa zen hau. Ez da toki makala musika, artea eta zientzia uztartzeko!

Hemen, aretoko txoko batean, bere txistua eta danbolina jarri zituen mahai txiki baten gainean, bere musika-zaletasunaren seinale. Horren aurretik, bere jai-jantzi bat utzi zuen Azkoitiko Udalean (kasaka eta prakak), jostunek eredutzat har zezaten herriko txistularien jantziak egiteko.

Horrelakoxea izan zen Peñafloidako kondea, bizi zen herriko musika-ohituren gertuko. Bergara, Zestoa, Gatzaga eta inguruko beste herri batzuetara joaten zenean, danbolin-jotzaileek

harrera egiten omen zioten, eta berak saria ematen zien ordainetan.

Zientzia fisikoan aditua zen; laborategia zuen etxean; eta garai hartako musika-tresnen soinua hobetzeko moduari buruzko hausnarketak egin zituen.

Fisikari buruzko hizketaldietan, soinuari buruz jardunak ziren. Pentsatuko ote zuen kondeak nola uztartu soinu-uhinak eta bibrazio-higidura musika eta artearekin? Jakingo ote zuen fisikako elementu bateratzaileetatik garrantzitsuenetako bat uhin-entzuteko zela?

Artea eta zientzia munduarekin harremanetan egoteko bideak dira. Musikak, artearen beste edozer adierazpenen antzera, gizakiarengana hurbiltzea du xede; edertasunetik haratago. Zientziaren bidez, naturaren legeak behatzen, neurtzen eta zehazten ikasi dugu; inguruan dugun munduaren edertasuna hautemateko beste bide bat izanik.

Kondearen hainbat senitarteko, lagun eta apaiz buruargi eta adituak agertu ziren aretoan. Adeitsuki elkar agurtu, eta sutondoko mahaiaren inguruan eseri ziren. Egun berezia zen. Elkarte zientifiko edo batzar akademiko berri bat sortzeko deitu zituen kondeak; Londonen, Parisen, Stockholmen eta Europako beste leku batzuetan sortutako sozietate zientifiko handien antzerakoa. Sozietate berriak zientifikoak eta ekonomikoak izan behar zuen, garai hartako egoera ekonomiko zailera egokitutakoa. Honako xede hauek zituzten: *“Euskal Herriak Zientzietan, Arte eta Letra Ederretan duen joera eta zaletasuna lantzea, ohiturak zuzendu eta fintzea eta euskaldunen arteko batasuna are gehiago sendotzea”*.

Oraingoz, fundatzaileak hizketan utziko ditugu, garrantzi handiko erabakiak har ditzaten.

Gaurko honetan, duela 250 urteko hizketaldi horiek gogora ekartzeko bildu gara areto honetan. Lehen gertatu zen bezala, orain ere txistua dugu zaindari; herrialdeko musikaren eta tradizioen ikur.

Duela 250 urte Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte hau sortzea bultzatu zuten ideiak gure bizi-proiektuetarako eredu-kotzat hartuta, guk ere herrialde hau hobe dezakegula uste dugu; herrialde txikia, baina pertsona jantzi eta ausartetan oparoa.

Gaur egun, garai hartako antzeko inguruabarrak artean direla, zientzian, gizartean eta politikan birsortzea izango dela antzeman daiteke. Zientzia beharrezkoa da; teknologia beharrezkoa da; dirua eduki behar da; baina hori guztia baino are beharrezkoagoa da ondo prestatutako pertsonak izatea; pertsona trebeak eta lan-ingurua eraldatzeko ilusioa dutenak.

Ingurua eraldatzeko prest dauden eta ingurua aldatzea lortzen ari diren pertsonen artean Garikoitz Mendizabal Etxeberria txistularia dugu; gaurko honetan, Euskalerrriaren Adiskideen Elkartean hartuko duguna.

Gastea bada ere (Zestoa, 1973), Garikoitz Mendizabal Etxeberriak bide luzea egina du hona iritsi arte.

- Karrera-amaierako ohorezko saria jaso zuen, eta txistuko goimailako ikasketetan graduatu zen Donostiako Musika Kontserbatorio Nagusian.
- Lehenengo bi sari jaso ditu Euskal Herriko Txistulari Txapelketan; eta, 2002. urtean, lehenengo saria eskuratu zuen Txistulari Taldeen Txapelketan (Orereta, Gipuzkoa), Gasteizko Udal Txistulari Taldearekin, haren zuzendari izan baitzen.
- Ospe handiko hainbat taldetan aritu da bakarlari gisa, besteak beste: Madrilgo Orkestra Sinfonikoan; Bilboko Orkestra Sinfonikoan; Hego Koreako Chun Cheon Philharmonic Orchestra-n eta Gyon-book Philharmonic Orchestra-n; eta Madrilgo Udal Bandan.
- Korrontzi folk-taldeekin elkarlanean aritu da; Carlos Nuñez eta Kepa Junkerarekin izan da oholtza gainean; eta hainbat musika-proiektutan parte hartu du.
- Diskografia zabala izanik, musika-tresnarekin eta haren kulturarekin erabateko konpromisoa hartua du Garikoitzek.
- Gaur egun, Bilboko Udal Txistulari Taldeko zuzendaria da eta, aldi berean, bakarlari dihardu.

Garikoitzekin zor handia du Zestoak. 2012. urtean, Zestoako musikaren eta musikariaren historiari buruzko “Zestoako musika, historiaren konpasean” izeneko azterlan sakona argitaratu zuen.

Lan horren guztiaren atzean bere familiarenganako maitasuna dago; musika bizi duen familiarenganako. Muinean, ama Mari Carmen dago. Musika-izpirituen artean, osaba Sebastian; iradokitzaile eta babesle.

Zestoako parrokiako organo-jotzaile naizen aldetik, Garikoitz txistulariaren ondoan izan nahiz herriko gertakari adierazgarrietan (ezkontza, bataio, hileta eta ospakizunetan). Orain, Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko kide naizen aldetik, elkarteko adiskide numerario gisa elkartera harrera egiteko ohorea dut.

- Peñafloredako kondeak adierazi zuen moduan, honako konpromiso hau onartzen dugu elkarrekin onartzen honetan sartzean:

*“Aurrerantzean, lagun on, aita on, eta errepublikar on izatea ez da nahikoa izango. Gaurko honetan besarkatzen dugun lanbide honek obligazio are handiagoak sortu dizkigu. Orain arte, gure kasa geniharduen; hemendik aurrera, berriz, herriarenak izango gara guztiak... Ez etsi, ene adiskideok; maitatu zuen aberria, maitatu elkarrenganako zuen gloria, maitatu gizona eta, azken batean, izan zaitezte Herriaren, eta gizatasun osoaren lagun duin”.*

## PALABRAS DE RECEPCIÓN

---

Julián Serrano

Amigo de Número de la Bascongada

Nos podemos imaginar en este lugar a Xabier María de Munibe, Conde de Peñafiorida, esperando a sus amigos, un sábado del mes de setiembre de hace ya 250 años. Era el día de la semana dedicado a las “conversaciones”, tertulia sobre los acontecimientos políticos, culturales y temas varios. Los demás días de la semana se habían dedicado a temas científicos y técnicos, reservando los domingos al teatro y a la música.

Hacía tiempo que las tertulias se desarrollaban con cierta reglamentación. El Conde pensaba transformarlas en academia de ciencias al estilo e imitación de las ya establecidas y famosas academias de los países adelantados de Europa. Había adecuado incluso esta casa, su casa, al estilo y manera de los dictámenes que marcaba la Ilustración para mejor uso propio, de sus amigos y visitantes. Esta era la sala de las tertulias científicas y académicas que se celebraban diariamente. ¡Qué mejor lugar para unir música, arte y ciencia!

Aquí mismo, en un ángulo del salón, como símbolo de su amor a la música, había colocado sobre una pequeña mesa su propio txistu y tamboril. En el ayuntamiento de Azkoitia había dejado previamente uno de sus trajes de fiesta (casaca y pantalón) para que las costureras lo tomaran como modelo para los txistularis del pueblo.

Este era el Conde de Peñafiorida, cercano a las costumbres musicales del pueblo en donde vivía. Dicen que en sus viajes

realizados a localidades cercanas como Bergara, Zestoa, Salinas, y otras, era recibido por los tamborileros que percibían después la correspondiente gratificación.

Estudioso de las ciencias físicas, con laboratorio particular en su propia casa, trataría de mejorar mentalmente cómo perfeccionar el sonido de los instrumentos de la época.

En las tertulias dedicadas a la Física, habían tratado ya todo lo relativo al sonido. ¿Pensaría el Conde cómo unir ondas sonoras, movimiento vibratorio con música y arte? ¿Sería consciente de que el concepto de ondas era uno de los elementos unificadores más importantes en el conjunto de la física?

El arte y la ciencia son vías por las que nos relacionamos con el mundo. El arte musical, como todo arte, busca, más allá de la belleza un acercamiento al hombre y la ciencia nos enseña a observar, medir y determinar las leyes de la naturaleza como otra forma de la belleza del mundo que nos rodea.

Comenzaron a aparecer en el salón varios parientes cercanos del Conde, algunos amigos e incluso varios sacerdotes despejados y estudiosos. Se saludaron efusivamente y se fueron sentando alrededor de la mesa junto a la chimenea. Hoy era un día especial. El Conde les había convocado para perfilar una nueva Sociedad Científica, o Junta Académica, a modo y manera de las grandes sociedades científicas creadas en Europa como las recientes de Londres, París, Estocolmo y otras. Esta nueva Sociedad debería ser científica y económica adecuada a los difíciles tiempos económicos en los que se vivía. Su ideario era “*cultivar la inclinación y el gusto de la Nación Bascongada hacia las Ciencias, Bellas Letras y Artes; corregir y pulir sus costumbres y estrechar más la unión entre los vascos*”.

Dejamos por un momento a los fundadores en su tertulia junto a sus importantes y decisivas decisiones.

Nosotros, hoy hemos llegado a este salón para recordar aquellas tertulias de hace 250 años. También, antes como ahora,



nos mira y nos acompaña el txistu, símbolo de la música y de las tradiciones del País.

Tomando como modelo para nuestros proyectos vitales las ideas que impulsaron la creación hace 250 años de esta Sociedad de los Amigos del País, consideramos que nosotros también podremos mejorar este País, pequeño, pero que cuenta con personas cultas y atrevidas.

Actualmente, una serie de circunstancias similares, permiten también vislumbrar un resurgimiento científico, social y político. La ciencia es necesaria, la tecnología es necesaria, la disposición de dinero es necesaria, pero son más importantes aun las personas bien formadas, hábiles y con ilusión por transformar el entorno en donde trabajan.

Entre estas personas que están dispuestas a transformar su entorno y que lo están consiguiendo tenemos al txistulari Garikoitz Mendizabal Etxeberria, a quien hoy acogemos en esta Sociedad Bascongada de los Amigos del País.

Garikoitz Mendizabal Etxeberria (Zestoa, 1973), es joven, pero ha recorrido un largo camino hasta llegar aquí.

- Premio de Honor fin de carrera y Graduado Superior en Txistu por el Conservatorio Superior de Música de San Sebastián.
- Laureado con dos Primeros Premios en el Concurso de Txistularis del País Vasco y en 2002 logró alzarse con el primer premio en el Certamen de Bandas de Txistularis, celebrado en Rentería (Gipuzkoa), con la Banda Municipal de Txistularis de Vitoria de la que fue Director.
- Ha actuado como solista con agrupaciones de gran prestigio: Destacan entre otras, la Orquesta Sinfónica de la Comunidad de Madrid, Bilbao Orkestra Sinfonikoa, las Chun Cheon Philharmonic Orchestra y Gyon-book Philharmonic Orchestra de Corea del Sur o la Banda Municipal de Madrid.
- También colabora con grupos de Música Folk como Korrontzi, además de compartir escenario con artistas de la talla de Carlos Núñez o Kepa Junkera y en diferentes proyectos musicales.

- Con una amplia Discografía, Garikoitz está totalmente comprometido con el instrumento y su cultura.
- En la actualidad es Director de la Banda Municipal de Txistularis de Bilbao, puesto que compagina con su carrera como solista.

El pueblo de Zestoa tiene una gran deuda con Garikoitz. En el año 2012 publicó una investigación exhaustiva sobre la historia de la música y los músicos de Zestoa bajo el título “Zestoako musika historiaren konpasean”.

En el fondo de todo este trabajo está el amor por su familia, una familia que vive con la música. En el centro su madre Mari Carmen. Entre los espíritus de la música su tío Sebastián, inspirador y protector.

Como músico organista de la iglesia parroquial de Zestoa he estado cercano al txistulari Garikoitz en los acontecimientos significativos del pueblo (bodas, bautizos, difuntos, celebraciones). Ahora como Amigo de la Bascongada tengo el honor de acogerle en la Sociedad como Amigo de Número.

Tal como lo expresó el Conde de Peñaflores, este es el compromiso que aceptamos al ingresar en esta ilustre Sociedad:

*“No basta en adelante el ser buenos Amigos, buenos Padres de familia y buenos Republicanos. La profesión que abrazamos hoy nos constituye en mayores obligaciones. Hasta aquí podíamos ser solamente nuestros, ahora debemos ser todos del Público... No desistáis pues de él Amigos míos, amad vuestro Patrio suelo, amad vuestra recíproca gloria, amad al Hombre, y en fin mostraos dignos amigos del País, y dignos Amigos de la Humanidad entera”.*